



EKOGRAFIA ENDORREKTALA

Zer egiten da proba honetan?

Ondesteko pareten irudiak ikusteko egiten da, lesiorik dagoen jakiteko, esaterako: polipoak, tumoreak, etc.

Nola prestatuko naiz proba egiteko?

- Erraz janzteko eta eranzteko moduko arropa ekarri.
- Proba-egunean, goizean, eman dizugun Casen® garbiketa-edema bat jarri behar duzu.
- Ez da beharrezkoa baraurik etortzea.

Non egingo didate proba?

Txagorritxu egoitzan, 7. D solairuan Manometriak. Heltzen zarenean idazkaritzan probaren eskaera eman.

Nola egingo didate proba?

Esango dizute ohatilan etzan beharko duzula, saiheska eta ezker aldera begira, eta belaunak tolestuta. Arreta ematen dizuten langileek azalduko dizute miaketa zertan datza. Asteko, uzki eta ondostearen miaketa labur bar egingo dizute. Medikuak anoskopia sartuko dizu uzkitik, jarraian zunda bat ekografia egiteko. Zunda ordenagailu bati konektatuta dago, eta horren bitartez ondesteko paretak ikusiko ditu. Litekeena da komunera joateko gogo txiki bat sentitzea.

Probak ia ez du molestiarik eragiten, eta normalean ez da mingarria. Gehienetan, 10-15 minutu irauten du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ez duzu ezer berezirik behar. Ohiko bizimodua egin dezakezu.

Probaren emaitzak, dagokion txostenarekin batera, proba eskatu zuen medikuari bidaliko zaizkio. Horregatik, medikuarentzako hitzordua eska ezazu Kanpo-kontsultetan, oraindik eskatu ez baduzu.